

ALKATEARI

Talde Popularraren bozeramaile Borja Corominas Fisasek, Udalbatzaren Organo Araudiaren 98. artikulua babesean, KONTROL MOZIO hau aurkezten du, Gune Publikoen Batzordean (Obrak eta Hiri Zerbitzuak) afari solidarioei buruz egindako interpelazioaren ondorioz.

JUSTIFIKAZIOA

Egian debekatu ziren afari irregularrak Konstituzio plazaren eta Gipuzkoa plazaren inguruetan eta Anoetako estadioaren inguruan eskaintzen dira oraindik.

Bizilagunak eta merkatariak kexu dira afari horiek inguruan sortzen dituzten segurtasunik ezagatik, lapurretengatik eta eragozpenengatik.

Hori dela eta, hau da gure

KONTROL MOZIOA

1. Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen du, Egian egin zen bezala, Konstituzio plazan, Gipuzkoa plazan eta Anoetako estadioaren inguruan eskaintzen diren afari irregularrak debekatzeko.
2. Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen du afari horiek baimenik gabe eskaintzen dituzten elkarteak eta taldeak identifikatzeko eta haiei zehapenak ezartzeko.
3. Donostiako Udalbatzak uko egiten badio gobernu-taldeari afari horiek debeka ditzala eskatzeari, gobernu-taldeari eskatzen diogu herritarren eta merkatarien segurtasuna berma dezala afariak eman aurretik, bitartean eta ondoren, gizalegearen kontrako ekintzetan parte hartzen dutenak identifikatuz.
4. Donostiako Udalbatzak gobernu-taldeari hertsatuki eskatzen dio Donostian bizi diren pertsona guztien elikadura-segurtasuna berma dezala, Udaleko gizarte-zerbitzuen bidez.



DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN



SAN
SEBASTIÁN

PP Talde Politikoa Grupo Político PP

Ijentea, 1 | Tel. 943481707 | www.donostia.eus
20003 Donostia / San Sebastián

Donostia, 2025eko azaroaren 21a

Borja Corominas Fisas

Udaleko Talde Popularraren bozeramailea